





**CIE** Automotive

Kanal etikoaren araudia

 <b>CIE Automotive</b>	<b>KANAL ETIKOAREN ARAUDIA</b>	Kodea:	CIE CO CP M 03
		Berrikuspena:	02
		Orria:	2 / 8

## Edukia

1. Helburua.....	3
2. Konfidentzialtasuna eta errepresaliarik eza.....	3
3. Irismena.....	3
4. Funtzioak eta erantzukizunak .....	4
5. Salaketaren tratamendua.....	4
I. eranskina - Kanal etikoaren pribatutasun-gidalerroak.....	6

 <b>CIE Automotive</b>	<b>KANAL ETIKOAREN ARAUDIA</b>	Kodea:	CIE CO CP M 03
		Berrikuspena:	02
		Orria:	3 / 8

## 1. Helburua

CIE Automotive, S.A. enpresak (aurrerantzean, “**CIE Automotive, S.A.**” edo “**Taldea**”) kontseilari, zuzendaritza-taldeko kide, langile eta Taldea osatzen duten enpresa guztietako langile guztientzako (aurrerantzean, “pertsonak”) kanal batzuk ditu gaituta, baita interes-taldeentzat ere, irregulartasunak edo CIE Automotive, S.A. enpresaren Jokabide-kode profesionala ez-betetzere berri emateko (aurrerantzean, “**Jokabide-kodea**”), baita legez kanpoko jokabideak edo portaerak ere eta pertsona juridikoen erantzukizunak sor ditzaketenak.

CIE Automotive, S.A. enpresak kanal hauek ditu gaituta:

- Kanal etiko elektronikoa: [canaletico@cieautomotive.com](mailto:canaletico@cieautomotive.com)
- Betearazpen Sailari zuzendutako posta, helbide honetara:  
Mazarredo zumardia 69, 8. 48009 Bilbo (Bizkaia), Espainia.
- Informazio eta komunikazio-kanal bat intraneten eta enpresako webgunean.

Dokumentu honen xedea da aipatu mekanismoen araudia ezartzea.

## 2. Konfidentzialtasuna eta errepresaliarik eza

Jakinazpen edo kontsulta oro era anonimoz egin ahal izango da, eta azalpenean bertan gehitu beharko da.

CIE Automotive, S.A. enpresak informatzailearen eta prozeduran parte hartutako gainerakoen konfidentzialtasun osoa bermatzen du, batez ere, diziplina-neurriak hartzeko unean edo prozedura judizialak tramitatzean, halakorik egin beharko balitz.

Ikerketa-prozeduran parte hartutako pertsona guztiak konfidentzialtasun osoz gorde behar dira, sekretu profesionalaren arloan. Betebehar hori betetzen ez bada, legez dagozkion neurriak aplikatu daitezke.

CIE Automotive, S.A. enpresak zehatz-mehatz debekatzen du edozein errepresalia, mehatxu, bortxa, zigor, diskriminazio edo neurri negatibo hartzea gorabeheraren berri eman duen pertsonaren aurka, gorabeheraren aurka egin ostean, horien asmo ona aintzat hartuta.

Printzipio horren berme gisa, informatzailea Betearazpen Sailarekin harremanetan jarri ahal izango da gorabeheraren berri emateagatik jasaten ari den balizko errepresalien aurkako orientazioa eta babesa lortzeko.


Edonola ere, pertsona batek uste badu, zuzenean edo zeharka, errepresaliak jasotzen ari dela edo jaso dituela, horren berri eman beharko du.

Jokabide-kodea ez betetzearekin lotuta salaketa bat egiten duen edozein pertsonak arrazoitutako susmoak izan beharko ditu adierazitako informazioak arazo garrantzitsu bat azaltzen duela berresteko.

Salaketa asmo txarrez egin dela azal dezakeen edozein alegazioren aurrean, CIE Automotive, S.A. enpresak bidezko jotako legezko ekintzak hartu ahal izango ditu.

## 3. Irismena

Ezarritako mekanismoak Taldeko kide diren pertsona guztietarako eta bere interes-taldeetarako gaituta daude irregulartasunak daudenean edo etika, integritatea edo Jokabide-kodean ezarritako xedapenak betetzen ez direnean eta horien aurka egiten dutenean.

 <b>CIE Automotive</b>	<b>KANAL ETIKOAREN ARAUDIA</b>	Kodea:	CIE CO CP M 03
		Berrikuspena:	02
		Orria:	4 / 8

## 4. Funtzioak eta erantzukizunak

Jakinazpenen eta kontsulten tramitazioak Betearazpen sailari dagozkio eta isilpean aztertu eta tratatuko dira. Esku hartzen duten pertsonen datuak kanal etikoaren Pribatutasun-gidalerroetan xedatutakori jarraikiz kudeatuko dira (l. eranskina).

CIE Automotive, S.A. enpresaren erantzukizun Sozial Korporatiboko Batzordearen erantzukizuna da kanal horiek izatea, eta kanal horiek kudeatzea, mantentzea eta eguneratzea Betearazpen Sailaren erantzukizuna da, eta Batzorde horri txostenak bidali beharko dizkio.

Egindako salaketa guztiak Betearazpen-sailak bildu eta aztertuko ditu, eta hark erabakiko nola egin kasu bakoitzean. Salaketak posta edo beste bide baten bidez jasotzen badira (adibidez Barne-auditoretzako sailaren bidez edo Giza Baliabideen sailaren bidez), salaketa Betearazpen-sailari jakinarazi beharko zaio salaketa.

## 5. Salaketaren tratamendua

Kanal etikoan salaketa bat jasotzen denean, Betearazpen-sailak ikertu behar dena ala ez erabakiko du, garrantziaren edo izaeraren arabera. Ez litzakeela aztertu behar erabakitzen bada, Betearazpen-sailak erregistro bat egingo du eta salatu duenari ebazpenaren berri emango dio.

Jasotako salaketa ikertzea erabakitzen denean, ostera, Betearazpen-sailak ekintza-plan bat definituko du. Ikerketa Betearazpen-sailak berak edo Barneko auditoretza-sailak egin dezake, edo egoki irizten den beste norbaiten esku utz daiteke. Ikerketa egiteko izendatutako pertsona horrek, alde aurretik Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Batzordeko Presidenteak, Kontseiluaren idazkariak eta Betearazpen-saileko zuzendariak onartuta, kanpoko auditoreak edo aholkulariak kontratatu ahal izango ditu ikertzen lagundu eta emaitzak aztertzeke.

Ikerketa egiten duen instantziak eskumena izango du salaketaren igorlearekin harremanetan jartzeko xehetasun gehiago bildu eta ikerketa egoki bideratzeko.


Ikertzen amaitu ostean, arrazoitutako txosten bat egin beharko da gertakariak zerrendatuta, eta horren kopia bat emango zaio Betearazpen-sailari. Txosten horrek gutxienez informazio hau izan beharko du:

- ✓ Alderdi teknikoak (izenburua, egilea, data, xedea eta jatorria).
- ✓ Espedientearen aurrekariak.
- ✓ Ikerketaren arrazoia eta xedea.
- ✓ Aztertutako ekintzak eta alderdiak.
- ✓ Ikerketaren dokumentutako emaitzak.
- ✓ Neurrirako proposamenak (diziplinazkoak, zuzentzaileak edo prebentziozkoak).

Betearazpen-sailak jasotako ikerketa-txostena berrikusi eta hartu beharreko ekintzak zehaztu beharko ditu txostenaren emaitzen arabera. Ekintza zuzentzaileen azken onespena Erantzukizun Sozial Korporatiboko Batzordearen baitan dago. Edonola ere, jasotako salaketa guztien xehetasunak dituen erregistro bat ere aurkeztuko zaio tarteka, salaketa horiek aztertu diren edo ez aintzat hartu gabe, Erantzukizun Sozial Korporatiboko Batzordeari.

Kanal etikoa oinarritzko printzipio hauetan oinarritzen da:

- **Komunikazioa:** arauen bat ez betetzea suposatzen duen jokabide susmagarriena.
- **Egiatzotasuna:** egindako komunikazioak gertatutakoaren berri eman behar dute.
- **Errugabetasun-presuntzioa:** ikertutako pertsonaren errugabetasun-presuntzioa gordetzen da prozesuaren fase guztietan, egozten zaizkion ekintzak frogatuta, ala frogatu gabe, geratzen diren arte.

 <b>CIE Automotive</b>	<b>KANAL ETIKOAREN ARAUDIA</b>	Kodea:	CIE CO CP M 03
		Berrikuspena:	02
		Orria:	5 / 8

- **Konfidentzialtasuna:** informatzailearen eta esku hartutako gainerakoen erabateko konfidentzialtasuna bermatu behar da.
- **Tutoretza eraginkorra:** kanal etikoaren bidez egindako komunikazio guztien analisi zehatza eta ebazpena bermatzen da.
- **Proporzionaltasuna:** salaketa tramitzeko unean informazioa biltzea eta lortzea objektiboki behar-beharrezkoa dena mugatuko da.
- **Inpartzialtasuna:** egindako komunikazioak modu parekidean, osorik, objektiboan eta independentean gauzatuko dira.
- **Audientzia:** salatzailea eta salatuak entzun beharko dira espedientea tramitatzen den bitartean, egoeraren batek hori gertatzea eragozten ez duenean izan ezik.
- **Aukera-berdintasuna:** salatariak eta salatuak audientzia efektibo eta orekatu bat izateko aukera bera izan beharko dute.
- **Defentsa:** salatutako pertsonak espedientearen instrukzio-faseko edozein momentutan eskatu edo ekarri ahal izango du informazioa, dokumentazioa edo deskargutzeko frogak, egoki iritziz gero.

 <b>CIE Automotive</b>	<b>KANAL ETIKOAREN ARAUDIA</b>	Kodea:	CIE CO CP M 03
		Berrikuspena:	02
		Orria:	6 / 8

# I. eranskina - Kanal etikoaren pribatutasun-gidalerroak

## 1. Helburua

CIE Automotive, S.A. enpresaren kanal etikoaren pribatutasun-gidalerro hauen xedea salaketak kudeatzeko eta tramitatzeko egingo den datuen tratamenduaren berri ematea da, baita, kanalaren bidez egindako kontsultenak ere.

Kanal etikoa ongi konfiguratu eta diseinatzeko, CIE Automotive, S.A. enpresak datuak babesteko arloan aplikagarri den araudia guztiz betetzen du, eta batez ere Europar Batzordearen 2016/679 Araudia (EB), 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionean eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

Era berean, kanal digitala diseinatzeko unean kontuan hartu da Datuen babeserako Espainiako Agentziaren 0128/2007 Txosten juridikoa: “Barne-salaketak egiteko sistemak sortzea espresetan (*Whistleblowing* sistema)” eta Europar Batzordearen 29 Artikuluko Lan-taldearen “1/2006 txostena *Whistleblowing* barne-mekanismoei Europar Batasuneko Datuak babesteko arauak aplikatzeari buruzkoa kontularitza-arloan eta auditoretzako barne-kontrolak, iruzurraren aurkako borroka eta banku- eta finantza-delituak”

## 2. Datuen tratamenduaren arduraduna

CIE Automotive, S.A. da datuen tratamenduaren arduraduna.

- Helbidea: Mazarredo zumardia 69, 8. solairua, Bilbo, 48009, Bizkaia
- Helbide elektronikoa: [gdpr@cieautomotive.com](mailto:gdpr@cieautomotive.com)

Salatzaile edo salatu oro joan ahal izango da bertara datu pertsonalen tratamenduari buruzko galderak, soilik, kontsultatzeko eta legez dituen eskubideak gauzatzeko, “Eskubideak gauzatzea” izeneko 6. atalean zehazten den moduan.

## 3. Datu pertsonalen tratamendua eta legitimazioa


Kanal etikoan bildutako datu pertsonalak salaketak eta jasotzen diren salaketak tramitatzeko soilik tratatuko dira eta, hala balegokio, baita salatutako ekintzen errealitatea ikertzeko ere.

Salatzaileari eta salatuari behar bezala informatuko zaie zein pertsona eta erakunderi jakinaraziko zaizkien bere datuak, kasu bakoitzean.

Kanal etikoaren esparruko datuen tratamendua interes publikoan egindako misio bat betetzeko egiten da, horixe baita barneko kanal etikoaren kudeaketa, indarrean den legea nahiz CIE Automotive, S.A. enpresaren barne-araudia urratzen duten balizko jokabideak prebenitzea eta ezagutzea izanik helburu. Hori guztia datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionean pertsona fisikoen babesari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Europar Parlamentuaren eta Batzordearen (EU) 2016/679 Araudiaren arabera egingo da.

## 4. Zure datuak gordetzeko denbora

Salaketa egiten duenaren, salatu denaren eta hirugarrenen datuak salatutako ekintzen ikerketa hastea egokia den erabakitze behar den denboran gordeko dira, eta ikerketa hasiz gero, hura irekita dagoen bitartean.

 <b>CIE Automotive</b>	<b>KANAL ETIKOAREN ARAUDIA</b>	Kodea:	CIE CO CP M 03
		Berrikuspena:	02
		Orria:	7 / 8

Beraz, ikerketa bat hasia ez dela beharrezkoa erabakitzen denean, datuak berehala blokeatu dira, eta salaketa horretatik erator daitezkeen erreklamazioak egiteko legezko epea amaitu arte soilik gordeko dira.

Era berean, ikerketa egiteko datu horiek tratatu behar badira, Erantzukizun Sozial Korporatiboko Batzordeak tratatzen jarraitu ahal izango ditu, edo hala bategokio, Administrazio Kontseiluak edo eskumen horiek eman zaizkion beste edozein barne-organok.

## 5. Zein hartzaileari jakinaraziko zaizkie datuak?

Beharrezko izango balitz edo hala exijituz gero, legez jakinaraztera behartzen den hirugarrenei jakinaraziko zaizkie, adibidez, erakunde publikoak, estatuko segurtasun-indar eta -gorputzak, epaileak eta auzitegiak.

Era berean, CIE Automotive, S.A. enpresak datu pertsonalak atzi ditzaketen eta zure enpresaren izenean eta bere kontura zerbitzuak ematen dituzten hirugarren enpresa-hornitzaileen laguntza izan dezake.

Aurreko horrekin lotuta, jakinarazten da CIE Automotive, S.A. enpresak zerbitzuak ematen dituzten enpresa-hornitzaileak hautatzeko irizpide zorrotzei jarraitzen diela datua babesteko dituen betebeharrak betez eta konpromisoa hartzen duela aipatu enpresa horiekin datuen tratamenduari buruzko kontratu bat sinatzeko, non, besteak beste, betebeharrak hauek ezarriko zaizkien:

- Neurri tekniko eta antolamenduzko egokiak aplikatzea.
- Datu pertsonalak hitzartutako xedeetarako soilik erabiltzea eta CIE Automotive, S.A. enpresaren dokumentatutako argibideak soilik betez.
- Zerbitzuak ematen amaitu ostean datu horiek ezabatzea edo itzultzea.


Zehazki CIE Automotive, S.A. enpresak bere jarduera gauzatzen duten enpresa-hornitzaileen zerbitzuak jasotzea kontrata dezake, titulu enuntziatiboan eta ez mugatuan, sektore hauetan: aholkularitza juridikoa, diziplina anitzeko zerbitzu profesionalen enpresak, zerbitzu teknologikoen enpresa-hornitzaileak, zerbitzu informatikoen enpresa-hornitzaileak edo segurtasun fisikoko enpresak.

Modu berezian, CIE Automotive, S.A. enpresak kanal etikoa hirugarren batera kanporatzea erabakitzen badu, enpresa horrekin tratamenduari dagokion kontratua sinatu beharko du datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionean pertsona fisikoen babesari buruzko 2016ko apirilaren 27ko Europar Parlamentuaren eta Batzordearen (EU) 2016/679 Araudiaren 28. artikuluan exijitzen diren dira aipamen guztiekin.

Zehazki, kontratu horretan idatzita jasoko da:

- Tratamenduaren arduradunak CIE Automotive, S.A. enpresaren argibideei jarraituko diela salaketen tramitazioetatik eratorritako datuen tratamenduan.
- Arduradunak ez ditu datu horiek gidalerro hauetan aurreikusten diren xedeetatik kanpo erabiliko.
- Arduradunak segurtasun-neurriak, neurri teknikoak eta antolakuntza-neurriak ezarriko ditu, kanalaren bidez kudeatutako informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko.
- Arduradunak hirugarrenei jakinaraziko dizkie kanal etikoaren administrazioan lortutako datuak.
- Arduradunak atzitu dituen datuak suntsitu edo itzuliko ditu CIE Automotive, S.A. enpresarekin zuen zerbitzu-harremana amaitu ostean.

Ekintza horietan ez dira datuak nazioartean transferituko. Aurrekoari kalte egin gabe, ekintzaren bat gauzatzeko beharrezkoa balitz datuak nazioartean transferitzea, CIE Automotive, S.A. enpresak aurrez uneoro indarrean dauden legeetan xedatutako informazio- eta legitimazio-betebeharrak beteko ditu zorrotz.

 <b>CIE Automotive</b>	<b>KANAL ETIKOAREN ARAUDIA</b>	Kodea:	CIE CO CP M 03
		Berrikuspena:	02
		Orria:	8 / 8

## 6. Eskubideak gauzatzea

Kanal etiko baten esparruan eta testuinguruan trata litezkeen datu pertsonalen pertsonak eskubide hauek dituzte:

- a. Eskubidea izango dute kanal etikoaren kudeaketan CIE Automotive, S.A. enpresa bere datu pertsonalak tratatzen ari den edo ez den berrespena jasotzeko, baita datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko, tratamendua mugatzeko eta zehatzak ez diren datuen aurka egiteko, edo hala balegokio, ezabatzea eskatzeko ere, besteak beste, kanal etikoa kudeatzeko datu horiek beharrezkoak ez direnean.
- b. Zenbait egoeretan, datu pertsonalak tratatzeari uko egin diezaiokete.
- c. Europar Batasuneko herrialde bakoitzeko Agentzia erregulatuzaileen aurrean erreklamazioak ere egin ahal izango ditu web-orri honen bidez: [https://edpb.europa.eu/about-edpb/board/members\\_es](https://edpb.europa.eu/about-edpb/board/members_es).

## 7. Proporzionaltasun-printzipioa eta datuen minimizazioa

Kanal etikoaren bidez bildutako datu pertsonalak salaketak tramitatzeke behar-beharrezkoak direnetera soilik mugatuko dira eta, bidezkoa balitz, salaketa horien egiazkotasuna egiaztatzeke eta salatutako ekintzetatik eratorritako legezko neurriak hartzeko. Datu horiek aplikagarri den datuen babeserako araudiari jarraikiz tratatuko dira uneoro, salaketaren ondorioz has litekeen ikerketarekin lotutako xede legitimo eta espezifikotarako, eta aipatu xedeetarako egokiak izango dira gehiegikerian erori gabe.

## 8. Segurtasun-neurriak eta konfidentzialtasuna

CIE Automotive, S.A. enpresak ziurtatzen du bildutako datuak baimenik gabe jakinaraztea edo atzitzea eragozteko segurtasuna babesteko beharrezkoak diren neurri teknikoak eta antolakuntzakoak moldatzen direla.

Xede horietarako, CIE Automotive, S.A. enpresak bere neurriak hartu ditu datu guztien konfidentzialtasuna bermatzeko eta ikerketan zehar salatzen duen pertsonaren nortasunari buruzko datuak ez zaizkiola salatu duen horri jakinaraziko bermatuko du, pertsonaren oinarritzko eskubideak errespetatuz, eskumena duten agintari judizialek har ditzaketen neurriei kalterik egin gabe, halakorik hartuko balute.